



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urriaren 22a

120. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/ITP-00030. Interpelazioa, pobreziaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (3. or.).
- 11-24/ITP-00031. Interpelazioa, mugaz gaindiko politika orokorrari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/POR-00328. Galdera, maiatzaren 30eko 16/2022 Legearen konstituzio-kontrakotasunaren gaineko zalantzak direla-eta Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (5. or.).
- 11-24/POR-00329. Galdera, 2024-2025eko unibertsitate-beken deialdiari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (6. or.).
- 11-24/POR-00330. Galdera, Enpresetan LGTBI pertsonen berdintasunari eta diskriminazio ezari dagokienez hartu beharreko neurrien plangintza bateratua garatzen duen errege dekretuari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (6. or.).
- 11-24/POR-00331. Galdera, VidAAs zentroaren helburuei buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00332. Galdera, Bularreko Minbizia Prebenitzeko Programan eta Nafarroan bularreko minbizia diagnostikatu zaien emakumeen azterketetan gertatzen ari diren atzerapenei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00333. Galdera, Nafarbideak sortu zenez geroztik egindakoei buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak egin du (8. or.).
- 11-24/POR-00334. Galdera, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionala hartuko duten nabeak birgaitzeko eta egokitzeko obren lizitazioari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (8. or.).

- 11-24/POR-00335. Galdera, etxebizitza-alokairurako pizgarriei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (9. or.).
- 11-24/POR-00336. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekiko 2025erako finantzaketa-konpromisoari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (9. or.).
- 11-24/POR-00337. Galdera, Ijitoen Garapenerako Nafarroako Estrategiari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00338. Galdera, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzeko foru lege proposamenari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00339. Galdera, asilo-eskatzaileentzako laguntzari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00340. Galdera, Nafarroa Marka kulturaren bidez bultzatzeari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00341. Galdera, departamentuen hizkuntza planei buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00342. Galdera, estresari eta osasun mentalari buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00343. Galdera, pobrezia Nafarroan bizi duen egoerari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00344. Galdera, laneko istripuei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00345. Galdera, Automozioaren Europako Erregioen Aliantzaren presidentetzari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/POR-00346. Galdera, laneko istripuen aurkako politikei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (15. or.).
- 11-24/POR-00347. Galdera, “Meloni Plana”ren aurka agertzeari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (16. or.).
- 11-24/POR-00348. Galdera, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuaren aurrekontua murrizteari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (16. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/ITP-00030. Interpelazioa, pobreziaren arloko politika orokorrari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako interpelazioa, pobreziaren arloko politika orokorrari buruzkoa.
2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du:

Kezkagarriak dira Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako borrokarako Europako Sarearen azken txostenetik heldu diren datuak. Hortaz, pobreziaren arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau egiten diot Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariari.

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/ITP-00031. Interpelazioa, mugaz gaindiko politika orokorrari buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako interpelazioa, mugaz gaindiko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako interpelazio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

"Nafarroa ez da uharte bat", horra indar politiko guztiek hainbat esparrutan behin eta berriz erabilitako esakunea. Hortaz, gero eta garrantzitsuagoak dira –oso garrantzitsuak– batik bat Europako erakundeekin dauzkagun harremanak, edo Europar Batasunaren barruan beste erkidego batzuekin aliantzak ehuntzeko balio dutenak, batik bat mugaz gaindiko gure auzokideekin.

Hortaz, mugaz gaindiko politika orokorrari buruzko interpelazio hau egiten diogu Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari.

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00328. Galdera, maiatzaren 30eko 16/2022 Legearen konstituzio-kontrakotasunaren gaineko zalantzak direla-eta Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, maiatzaren 30eko 16/2022 Legearen konstituzio-kontrakotasunaren gaineko zalantzak direla-eta Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioari atxikita dagoen Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Maiatzaren 30eko 16/2022 Legearen konstituzio-kontrakotasunari buruz dauzkan zalantzak aurkeztu dizkio Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak Konstituzio Auzitegiari. Hori ikusita, zer neurri hartuko du Gobernuak?

Iruñean, 2024ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortin

11-24/POR-00329. Galdera, 2024-2025eko unibertsitate-beken deialdiari buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, 2024-2025eko unibertsitate-beken deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan urriaren 10ean, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak 2024-2025 ikasturtean unibertsitate-ikasketak egiteko beken deialdia egin zuen.

Zer berritasun dakar aurtengo deialdiak?

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-24/POR-00330. Galdera, Enpresetan LGTBI pertsonen berdintasunari eta diskriminazio ezari dagokienez hartu beharreko neurrien plangintza bateratua garatzen duen errege dekretuari buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, Enpresetan LGTBI pertsonen berdintasunari eta diskriminazio ezari dagokienez hartu beharreko neurrien plangintza bateratua garatzen duen errege dekretuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen

denaren babesean, honako galdera hau egiten dio lehen lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan urriaren 8an, Enpresetan LGTBI pertsonen berdintasunari eta diskriminazio ezari dagokienez hartu beharreko neurrien plangintza bateratua garatzen duen errege dekretua onetsi zuen Espainiako Gobernuako Ministroen Kontseiluak.

Errege dekretuak LGTBI pertsonen eskubideak babesten ditu; izan ere, trans pertsonen benetako berdintasun efektiborako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legea garatzen du, haien eskubideak bermatzeko xedez, aniztasuna diskriminatzen den egoerak desagerraraziz.

Errege dekretu horrek zertan eraginena dio Nafarroako enpresa-sareari?

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-24/POR-00331. Galdera, VidAAs zentroaren helburuei buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, VidAAs zentroaren helburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio lehen

lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariari, urriaren 24ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Iragan urriaren 14an, Nafarroako Gobernuak VidAAs aurkeztu zuen, garapen aktibo, autonomo eta osasungarrirako abangoardia eta berrikuntza zentro berria foru erkidegoan.

Sarrigurenen dagoen zentro berri horrek gizarte-entitateen, enpresen, unibertsitateen eta zentro teknologikoen esku jarriko ditu dauzkan 1.000 metro koadro inguru, esperimentatu eta *in situ* testatu ahal izan ditzaten pertsonen autonomia eta bizi-kalitatea hobetzeko zerbitzu edo produktu berriak.

Zeintzuk dira VidAAs zentroaren helburuak?

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-24/POR-00332. Galdera, Bularreko Minbizia Prebenitzeko Programan eta Nafarroan bularreko minbizia diagnostikatu zaien emakumeen azterketetan gertatzen ari diren atzerapenei buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Bularreko Minbizia Prebenitzeko Programan eta Nafarroan bularreko minbizia diagnostikatu zaien emakumeen azterketetan gertatzen ari diren atzerapenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten duzu Bularreko Minbizia Prebenitzeko Programan eta Nafarroan bularreko minbizia diagnostikatu zaien emakumeen osasun-azterketetan gertatzen ari diren atzerapenei buruz?

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/POR-00333. Galdera, Nafarbidek sortu zenez geroztik egindakoei buruzkoa

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galdera, Nafarbidek sortu zenez geroztik egindakoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Nafarbidek zer egin du sortu zenez geroztik?

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

11-24/POR-00334. Galdera, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionala hartuko duten nabeak birgaitzeko eta egokitzeko obren lizitazioari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionala hartuko duten nabeak birgaitzeko eta egokitzeko obren lizitazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zergatik egingen da berriro Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionala hartuko duten nabeak birgaitzeko eta egokitzeko obren lizitazioa?

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/POR-00335. Galdera, etxebizitza- alokairurako pizgarriei buruzkoa*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, etxebizitza- alokairurako pizgarriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten dio Etxebizitzako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nola sustatu nahi duzu Nafarroan etxebizitzaren alokairua, eskaintza handitzeko eta dagoen eskariari erantzuteko?

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

11-24/POR-00336. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekiko 2025erako finantzaketa-konpromisoari buruzkoa*MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekiko 2025erako finantzaketa-konpromisoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak urriaren 24ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako 2025erako aurrekontu orokorretan, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren aurrekontua 2024koan baino txikiagoa da. Horrek zer eragin izanen du NUPekiko finantzaketa-konpromisoan?

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: M^a Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-00337. Galdera, Ijitoen Garapenerako Nafarroako Estrategiari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, Ijitoen Garapenerako Nafarroako Estrategiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Javier Arza Porrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta

Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2011z geroztik, Nafarroak ijitoen garapenerako plan estrategikoak izan ditu. Azken estrategia 2022an amaitu zen. Azken estrategia horrek tarteko ebaluazio bat izan zuen 2021ean; azken ebaluaziorik ez da argitaratu, ordea. Eta ez dakigu beste estrategiarik taxutuko ote den ere, Nafarroara egokitzeko Europako Estrategia (2020-2030) edo Espainiako Estatuaren Estrategia (2021-2030).

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten diogu Nafarroako Gobernuari:

Zer ebaluazio egiten duzu Ijitoen Garapenerako Nafarroako Estrategia (2019-2022) dela-eta? Ebaluazio horren arabera, zer erabaki estrategiko hartuko duzu Nafarroan ijitoen garapenean aurrera egiten jarraitzeko?

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-24/POR-00338. Galdera, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzeko foru lege proposamenari buruzkoa

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzeko foru lege proposamenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Solak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak urriaren 24ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Gobernuari sostengua ematen diogun talde parlamentariok lege proposamen bat sinatu genuen; horren xedea da tentsiopeko zonak deklaratu ahal izatea, departamentuak etxebizitzaren merkatuan esku hartu ahal izan dezan eta, halatan, Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legean aitortzen den etxebizitzarako eskubide subjektiboan aurrerabidea egin dezagun. Zer balorazio egiten duzu proposamen horri buruz?

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

11-24/POR-00339. Galdera, asilo-eskatzaileentzako laguntzari buruzkoa

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak egindako galdera, asilo-eskatzaileentzako laguntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Roncesvalles Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Geroa Baik bere kezka agertu nahi du, migrazioentzako nazioarteko babes-eskarien sistemaren eraginkortasun eza dela-eta. Errefuxiatu-estatutua lortzeko izapidea abiarazi nahi dutenek oztopo ugari aurkitu ohi dute lehenbiziko hitzordua lortzeko.

Badakigu eskumen hori estatuarena dela, baina badakigu, halaber, Nafarroako Gobernuari ere dagokiola, atzeritartasun-alorreko arreta- eta aholkularitza-zerbitzuaren bidez, izapide hori egiteko laguntza behar dutenei laguntzeko ardura. Zerbitzu horrek asilo eta atzeritartasun eskubideari buruzko informazioa ematen du, bai eta eskubide horretatik heldu diren administrazio-prozesuetako laguntza ere. Gure ustez, beraz, Nafarroan eskabide horiek direla-eta egun zer gertatzen den jakiteko datuak eta diagnostiko zehatza daukazue.

Hortaz, hirugarren lehendakariorde eta Migrazio Politiken arloko arduraduna zaren aldetik, honako galdera egiten dizugu:

Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiken arloko departamentuak nola lagunduko du gainditzen eskabidea izapidetzeko lehenbiziko hitzordua eskatzerakoan asilo-eskatzaileek dauzkaten arazo guztiak?

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

11-24/POR-00340. Galdera, Nafarroa Marka kulturaren bidez bultzatzeari buruzkoa

MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Nafarroa Marka kulturaren bidez bultzatzeari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Ceriok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer ekintza bultzatu behar du Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak Nafarroa Marka kulturaren bidez sustatzeko?

Iruñean, 2024ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio

11-24/POR-00341. Galdera, departamentuen hizkuntza planei buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, departamentuen hizkuntza planei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio Osoko Bilkuran honako galdera honi ahoz erantzun diezaion.

Nafarroako Gobernua osatzen duten alderdien arteko programa-akordioan jaso zen departamentuetako hizkuntza-planak abian jarriko direla.

Zein da konpromiso horren betetze-maila?

Iruñean, 2024 urriaren 17an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-24/POR-00342. Galdera, estresari eta osasun mentalari buruzkoa

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, estresari eta osasun mentalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak 2024ko urriaren 24ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Aurreko asteko albiste baten arabera azken urtean % 98 igo da estresa pairatu izana dioen nafarren kopurua, eta antsietate eta depresio adierazleak are ohikoagoak dira gazteen artean.

Zer neurri hartu du edo hartuko du zure departamentuak datu horiek ikusita?

Iruñean, 2024ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-24/POR-00343. Galdera, pobreziak Nafarroan bizi duen egoerari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, pobreziak Nafarroan bizi duen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledunaren ondoko Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak urriaren 24ko Osoko Bilkuran erantzuteko:

Nafarroako pobrezia-tasari buruzko azken datuak ikusita, Gobernuak azken 9 urteotan baliatutako gizarte-politikei eutsiko al die?

Iruñean, 2024ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/POR-00344. Galdera, laneko istripuei buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, laneko istripuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroak dituen arazo larrietako bat da laneko istripu-tasa. Arazo horrek lehentasuna al du zure gobernuarentzat?

Iruñean, 2024ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: M^{re} Teresa Nosti Izquierdo

11-24/POR-00345. Galdera, Automozioaren Europako Erregioen Aliantzaren presidentetzari buruzkoa

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Automozioaren Europako Erregioen Aliantzaren presidentetzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, 2024ko urriaren 24ko Osoko Bilkurako gai-zerrendan sar dadin.

Nola baloratzen duzu Automozioaren Europako Erregioen Aliantza presidentetza, oraintsu bukatu dena?

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-24/POR-00346. Galdera, laneko istripuen aurkako politikei buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, laneko istripuen aurkako politikei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehen-dakariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurten, orain arte, Estatu osoan Nafarroako Foru Komunitatea da laneko istripu-tasari dagokionez zenbakirik okerrenak dituen. Soilik 2024ko lehen seihilekoan 12 pertsona hil ziren beren lanpostuan edo bidean, eta bigarren seihilekoan istripu-tasaren igoerak ez du etenik, halako moduan non jadanik 17 pertsona hil baitira laneko istripuetan.

Zein da Gobernuaren konpromiso-maila zifra onartezin horiek murrizteko politikak baliatzeko?

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-24/POR-00347. Galdera, “Meloni Plana”ren aurka agertzeari buruzkoa*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasan handiko galdera, “Meloni Plana”ren aurka agertzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascués andreak urriaren 24ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Italiak Albanian migratzaileendako barneratze-eremu bat ireki izanak zuzen-zuzenean talka egingen du migratzaileen eskubideekin eta Nafarroatik defendatzen ditugun harrera-politikekin. Hortaz, Nafarroatik eskatzen dugu Europa osoari helaraz dakion neurri horren guztiz aurka gaudela.

Sánchez lehendakariari eskatuko al diozu Nafarroaren izenean Meloni Planaren aurka jar dadin harrera-politikei dagokienez?

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-24/POR-00348. Galdera, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuaren aurrekontua murrizteari buruzkoa*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasan handiko galdera, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuaren aurrekontua murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren ele-dun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasan handiko honako galdera hau egingen du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakari zaren horrek nola justifikatzen duzu jarduera ekonomikoari eta enpleguari begira estrategikoa den departamentu baten aurrekontua, Industria Departamentuarena, jaistea?

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea